

4. IRABAZI ITURRIAK

Produktua aurkezteko hainbat bide erabiliko ditugu: konferentzia bat egingo dugu produktuan interesa duenak etorri ahal izateko, eta horrela, gure egitasmoa ondo aurkeztu eta bezeroek izan ditzaketan zalantzak argitzeko aukera izango dugu. Modu honetan inbertitzaile bat lortu dezakegu.

Produktu berriak aurkezten dituzten feria batean parte hartuko dugu ere, mundu osoko inbertitzaile zein enpresari askorekin. Beste diru zati bat ere guk denbora luze batean zehar aurreztutako dirutik inbertituko dugu gure proiektuan.

Gainera, enpresa handiei salduko diegu gure produktua, Media Markt, Eroski, Ikea... Horrela, dirua irabaziko dugu, etorkizunean gure saltokia egin nahi baitugu. Baina momentuz beste enpresa baten bidez salduko ditugu gure produktuak, enpresarako diru sarrerak lortzeko.

Prezioa osagarrien arabera izango da: hiru mota edukiko ditugu, bezeroen beharren edo nahien arabera:

- Basic 670€
- Complex 785€
- Advanced 2380€

Gure partaidetza ehuneko desberdinetan banatuta egongo da. Konferentzia eta feriaren bidez gure produktuan interesatuta dauden bi inbertsore txinatar lortu ditugu, Txinan ere produktua ezagutzeko modua izango litzateke, nahiz eta lehenengo gure ingurutik ondo proposatu beharko da benetan gure enpresa edo produktua ezagutzeko. Kasu horretan Txinatik mundura iristeko modu bat izango litzateke.

Partaidetzaren ehunekoei dagokionez, bi inbertsoreek %40a jasoko dute eta guk ordea %60, hau da, %15 bakoitzak.